


# Euskal Astea

ZARAUZ 1924-2024



EUSKAL JAIA 100 URTE



Antolatzailea  
ZARAUZKO UDALA  
L a g u n t z a i l e a k  
AIEK / Alproja Taldea / Euskal Herrian Euskaraz / Goiztarrek / Imanol Urbieto Musika Eskola / Jaki Dantza Taldea / Montexio Abesbatza / Moxian-Etxebelitz Bertsu Eskola / "Arrain Zopa" Taldea / Nahiko Lari Trikitilariak / Goizeko Itintza Trikitulari Taldea / Zarautz Abesbatza / Zarautz TRIK / Schola Cantorum / Txipiriñ abesbatza / Udaberri abesbatza  
Inprimaketa: antza - argazkiak, tolin - zarauzko udala  
Oharra: antolatzaileek ez dituzte bere gain hartuko jai hauetan gertatzen diren istripuk. Hala eta guztiz ere, beharrezko josten den ekitaldietan DYA erakundeak izango da.



1924-2024

disenyo @viskwt

EUSKAL JAİETAN OHITURA ZAHARREI EUTSI ETA ZAINDU DEZAGUN GURE JANZKERA.



2024ko abuztuaren 29tik irailaren 9ra



Aurten 100 urte borobil beteko dira Mauricio Flores Kaperotxipi zarauztar pintoreari, Arantzazuko Amaren egunean, irailaren 9an eta uda luzatzeko asmoz, parekorik izango ez zuen euskal festa ospatzea bururatu zitzaionetik: euskal usadio eta ohituretan errotutako Zarauzko Euskal Jaia. Berehala batu zitzaizkion Jose Zinkunegi medikua, Nikolas Mujika pintorea eta Bonifacio Echegaray idazlea.

Lehen Euskal Jai hartako egitaraua xumea izan zen: goizean, dantzak, txistulariak eta trikitilariak eta gurdia herriko kaleetan. Arratsaldean, kalejira Inurritzara eta bertan erromeria, bertsolariak, dantza sariketa, Salbea eta Anjelusa San Pelaioko ermitan, eta, amaitzeko, kalejira herrira. Afaldu ondoren, txistu eta danbolin soinuaz, erromeria izan zen.

50eko hamarkadan, gerra ondorengo susperraldian, kaleko estanpak, jantzi eta karroza lehiaketak eta otxoteen kantuak ere sartu ziren egitarauan, eta 60ko hamarkadako garai zailetan, Haurren Euskal Jai Eguna eta Euskal Astea sortu zituzten, Euskaltzaleak mugimendu euskaltzaleak eta Oleskariak otxoteak, Manolo Urbieto bera buru zutela.

100 urte hauetan ehundaka talde eta herritarrek hartu duzue parte zarauztarrok hain kuttuna dugun Euskal Jaia antolakuntzan, eta egitasmo ugari eta askotarikoak antolatu izan dira Zarauzko festa herriko handi hau bultzatzeko eta indartzeko. Eskerrik asko guztioi, bihotz-bihotzez.

Euskal Jaia bizitzeko mila modu daude, bakoitzak berea, baina festa errespetuz eta arduraz disfrutatzea eskatzen dizuet, Zarautzen ez dugulako inolako jazarpenik edo erasorik onartzen.

Euskaltzaleasunaren eta zarauztartasunarenugarra bizirik mantendu duen Euskal Jaia mendeurrena giro jator eta alaian bizi eta ospatzea opa dizuet.

Zarauztar guztioi, ZORIONAK!

Xabier Txurruka Alkatea



**Abuztuaren 26tik irailaren 9ra • Euskal Jantzien Erakusketa**  
Herriko dendetako erakuslehoetan. Eskuorri berezia argitaratuko da.

**Abuztuaren 29tik irailaren 22ra • "Euskal Jaia 100 urte" Erakusketa**  
18:00-20:00 Merkatu Plazan, argazkiak eta Zuazobideren karrozen maketak.



**Abuztuaren 29a, osteguna**  
22:00 Santa Klaran (sarrera Amalur parketik), Bertsolari Gazteen XLVIII. Lizardi Sariaren kanporaketa saioa.


**Abuztuaren 30a, ostirala**  
22:00 Santa Klaran (sarrera Amalur parketik), Bertsolari Gazteen XLVIII. Lizardi Sariaren kanporaketa saioa.

**Irailaren 2tik - 6ra • Fandango eta arin-arin ikastaroa**  
17:30 Frontoi Txikin, Jon Alkain eta Alaitz Garciarekin Zarautz TRIKek lagunduta (📍 Gaztelekuan). Ez da izenik eman behar; nahikoa da bertan azaltzea.



## Irailaren 1a, igandea

## Haurren Euskal Jai Eguna



**10:30** Munoan, dantzarien bilkura.

**11:00** Kalejira, Musika Eskolako txistulari eta trikitilariekin.

**11:00** Dantzariek Agintariarena eta Agurra dantzatuko dituzte denek batera eta kalez kale ibiliko dira.

**12:45** Munoan, dantzarien harrera eta emanaldia (↑ kiroldegian).

**13:30** Munoan, haurrak familietan banatuko dira bazkaltzeko (↑ kiroldegian).

**17:30** Kalejira Musika plazatik Inurritzara, buruhandi, erraldoi, Zarautz TRIK eta Ustekabe txarangarekin.

**Ondoren**, Inurritzan, dantzarien bilkura.

**18:00** Inurritzan, puzgarriak haur eta nerabeentzat.

**18:30** Inurritzan, Euskaraokoa.

**20:00** Kalejira Inurritzatik Musika plazara.



## Irailaren 2a, astelehena

**17:30** Frontoi Txikin fandango eta ari-arin ikastaroa: Jon Alkain eta Alaitz Garciarekin Zarautz TRIKek lagunduta (↑ Gaztelekuan). Ez da izenik eman behar; nahikoa da bertan azaltzea.

**19:00** Lege Zaharren enparantzan, Helduen Binakako Dantza Txapelketa (↑ Modelo aretoan).

## Irailaren 3a, asteartea

**17:30** Frontoi Txikin fandango eta ari-arin ikastaroa: Jon Alkain eta Alaitz Garciarekin Zarautz TRIKek lagunduta (↑ Gaztelekuan). Ez da izenik eman behar; nahikoa da bertan azaltzea.

**19:00** Lege Zaharren enparantzan, Bikote Gazteen Dantza Txapelketa (↑ Modelo aretoan).

## Irailaren 4a, asteazkena

**17:30** Frontoi Txikin fandango eta ari-arin ikastaroa: Jon Alkain eta Alaitz Garciarekin Zarautz TRIKek lagunduta (↑ Gaztelekuan). Ez da izenik eman behar; nahikoa da bertan azaltzea.

**19:00** Lege Zaharren enparantzan, Trikitilari Gazteen XLIV. Txapelketa (↑ Modelo aretoan).

## Irailaren 5a, osteguna

**17:30** Frontoi Txikin fandango eta ari-arin ikastaroa: Jon Alkain eta Alaitz Garciarekin Zarautz TRIKek lagunduta (↑ Gaztelekuan). Ez da izenik eman behar; nahikoa da bertan azaltzea.

**20:00** Lege Zaharren enparantzan, herriko taldeen emanaldia: Euskal Jaiak ehun urtez herria ehuntzen (↑ Modelo aretoan).

- Aktoreak: Goretti Aranburu, Ander Iruretagoiena.
- Bertsolariak: Andoni Egaña, "Mantxi", Manu Goiogana.
- Goizeko Ihintza Txistulari Taldea.
- Jalgi Dantza Taldea.
- Kontalariak: Miriam Mendoza, Pako Serras.
- Txinpirin eta Zarazte Abesbatzak.
- Udaberri Abesbatza.
- Zarautz Trik Kultur elkarteko ikasleak.
- Gure teknikaria: Juanma Alvarez.
- Eszenografia, atrezzo: Bederenl.
- Zuzendaria/koordinatzailea: Patxi Santamaria.

## Irailaren 6a, ostirala

**17:30** Frontoi Txikin fandango eta ari-arin ikastaroa: Jon Alkain eta Alaitz Garciarekin Zarautz TRIKek lagunduta (↑ Gaztelekuan). Ez da izenik eman behar; nahikoa da bertan azaltzea.

**19:00** Lege Zaharren enparantzan, Ondartza taldearen emanaldia (↑ Modelo aretoan).

**22:00** Modelo aretoan, Bertsolari Gazteen XLVIII. Lizardi Sariaren finala. Sarrera: doan. Gonbidapenak egunean bertan ordubete lehenago Modeloko leihatilan.

## Irailaren 7a, larunbata

**11:00** Musika plazatik irtenda, Euskararen aldeko XXVIII. Lasterketa AEK-k antolatuta (izen-emateak 10:15ean).

**11:30** Lege Zaharren enparantzan, XXXVI. Auresku Txapelketa (↑ Modelo aretoan).

**14:30** Musika plazan, XXXVIII. Bazkari Herrikoia, EHEK antolatuta.

**Ondoren**, kalejira elektrotxarangarekin.

**18:00** Amalur parkean Artzain Txakurren Lehiaketa Jose Luis Saizarren omenez.



## Irailaren 8a, igandea

**12:00** Lege Zaharren enparantzan, "Mendeurrenaren brindisa": parrilla herrikoia, sagardo eta txakolin dastaketa. Parte-hartzaileak: Basa Lore, Mokoroa, Rezabal, Talai Berri txakolindegia eta Arizia sagardotegia.

**12:00** Musika Plazan, plaza-dantzak Alaken taldearekin.

**17:00** Gaztelekuan, erroskila tailerra nerabeentzat.

**19:00** Musika plazan, erromeria EINGO taldearekin.

**20:00** Frantziskotarren elizan, Zarautz Abesbatzak Salbea abestuko du.



## Irailaren 9a, astelehena

## Euskal Jai Eguna

**7:00** Diana herriko kaleetan zehar.

**8:00** Goiztarrak taldearen irteera. Antzinako ohiturak berreskuratuz, goizean, garai bateko pertsonaiak irudikatuko dituzte kalez kale.

**8:00** Gure Boza otxotea kaleetan zehar

**8:30** Kalez kale, txistulariak, trikitilariak, dultzaineroak eta Iturengo tunturroak.

**10:00** Euskal Jai Eguneko parte-hartzaileen talde argazkia.

**10:30** Frantziskotarren elizan, Meza Nagusia, Schola Cantorum abesbatzak abestuta.

**Ondoren**, Frontoi Txikin, Goiztarrak taldearen eskutik, pilota partidak, herri-kirolak eta bertsolariak.

**11:00-14:00** Arrosategi parkean, pottokak haurrentzat.

**11:45** Alproja taldearen irteera (San Inazio kalea, Kale Nagusia, Dorre Luzea parkea, Nafarroa kalea eta Munoa).

**12:00** Munoan, "Ehun urte zain" antzezlan.

**Eguerdian**, Musika plazan, erromeria trikitilari, txistulari eta dultzaineroekin.

**Ordu berean**, Lege Zaharren enparantzan, erromeria trikitilariekin.

**13:00** Lege Zaharren enparantzan, orga-lehiaketaren sari-banaketa.

**13:15** Munoan, erromeria Iratzar taldearekin.

**13:30** Musika plazan, karrozen aurkezpena.

**Ondoren**, Kale Nagusian egongo dira ikusgai

**14:00** Musika plazan, Lizarrako Larrain Dantza herrikoia dultzaineroekin.

**17:30** Musika plazatik Inurritzara kalejira, trikitilari, dultzainero eta txistulariekin.

**18:00** Inurritzan, haurrentzako herri-kirolak Kulki taldearen eskutik.

**18:30** Inurritzako zelaian, erromeria Bide Batez taldearekin.

**20:00** Inurritzan, Lizarrako Larrain Dantza herrikoia dultzaineroekin.

**20:30** Kalejira Inurritzatik Musika plazara.

**Ondoren**, Musika Plazan, erromeria trikitilariekin.

**22:00** Munoan, dantzaldia Iratzar taldearekin.